

Bidaia...

Komunitatearen Babesletzaren eskutik hartuko dugun familiaren elkarretaratzea, martxoaren 26an hasi zen. Caritas Gasteizko lankide batekin eta itzultzaile batekin batera, goizeko lauretan Gasteiztik autobusez Madrilerantz abiatu ginen. *Carretera y manta* gaztelerazko esaera hori ez da alderagarria, gatazka armatuari ihes egin behar izan dioten Siriako familia askok pairatu behar izan duten, eta oraindik pairatzen ari diren, odisearekin.

Goizeko 08:00-08:30ak inguru iritsi ginen gaur egun hegaldi komertzial eta militarretarako erabiltzen den Madril-Torrejon aireportura. Aireportu bat: Hau da, urduritasuna, kontrolak, paper-bilketa...



Beste erakunde batzuekin (GKEekin) batera, itxarongelara joan ondoren, zain geratu ginen. Ikusmina. Ziurgabetasuna. Galderak buruan bueltaka zebiltzan: ikusi orduko, nolakoa izango da lehen kontaktua? Zer esango diegu? Eta harrera. Badakigu nola egin, baina ondo egiteko gai izango al gara?...

Eguerdian lurreratu zen hegazkina. Bidaiariak, lur hartu zuten. Lepoa luzatzen hasi ginen, geneuzkan argazkien laguntzarekin, jaso behar

genuen giza talderen bila. Nekatuta zetorren adineko pertsonak eta haurrek osatzen zuten talde bat guregana zetorren: "Kaixo, ongi etorri!".

Errefuxiatuak, areto batean egon ziren non ezer gutxi deskantsatu zuten. Poliziaren kontrolek adierazten zuten jarraitu beharreko bidea. Deserosotasuna. Urduritasuna. Egonezinez betetako begiradak. Geltokia. Kontrola. Geldi! Identifikazioa...

Burokraziarekin konplitu ondoren, Polizia Nazionalak paperak eta bisa eman zizkigun, eta Guardia Zibilak, zeramaten ekipajea aztertu ondoren, aireportutik irten ginen. Ihes egiteko bidaia zail bat atzean utzi, eta beste bat hasi zuten gure jatorrizko tokira, 24 hilabetetan zehar (Komunitateko Babesletzak ezartzen duen denbora) babestuko ditugun bi familiekin. Bai Araban bai Gipuzkoan.

Ibilbidearen erdialdean geldialditxo bat egin genuen, aire pixka bat hartzeko, atsedean hartzeko, hankak luzatzeko... Patata-tortilla batzuk eskaini genizkien, beraien bigarren ibilbide berezia indarberritzeko. Errefuxiatuek, itzultzailearen laguntzarekin, konfiantza pixka bat gehiagoarekin, euren helmugako herriari buruzko galderak egiten hasi ziren: ea etxea partekatu beharko zuten...

20:00ak aldera iritsi ginen helmugara; CARITAS GIPUZKOako boluntarioa, motibazioz gainezka, zain genuen. Beharrezko laguntza emateko prest, egoitza berrira lagundu zieten atsedean har zezaten. Bere herrialdetik urrun, gatazkatik urrun, urrun... Hurrengo eguna zain zegoen erronka berri bat hasteko prest. Guztiontzat. Beraientzat. Guretzat. Ongi etorri!

